

2. SEGMENTAZIOA

Segmentazioari dagokionez, gure produktua mugikortasun arazoak edo dutxatzeko zailtasunak dituzten pertsoneri bideratua dago, nahiz eta edonork erosi dezakeen.

Esku robotiko hauen oinarrizko bertsioa, hots, osagarririk gabea, lehen aipatutako arazoak dituzten pertsoneri zuzenki bideratua egongo da eta beraz prezio eskuragarri batean saltzeko asmoa dugu, beraientzako beharrezkoa izan daitekeela ulertzen baitugu.

Bestalde, esku hauei osagarriak gehitzeko aukera egongo da. Osagarri hauen artean bozgorailua aurkitu dezakegu, eta beraz, aparatu hau atxikita duten eskuak pertsona gazteagoentzat eginak egongo lirateke. Horrez gain, masajeak emateko aukera ere egongo da osagarri gisa. Gure ustez, masaje hauek gehien behar izaten dituzten pertsonak adinekoak izaten dira (lesioren bat edo gaixotasunen bat duten jendearekin batera, noski) eta beraz iragarkiak egitean eta produktua saltzerako orduan adin-tarte altua duten pertsoneri gomendatuko genieke.

Azkenik, eskuak luzera eta zabalera desberdinetara egokitu daitezkeenez, familiako kide guztiek erabili ahal izango dituzte, modu batean ekonomikoagoa atera dadin.

Laburtuz, guk eskuak dutxatzeko zailtasunak dituzten pertsoneri bideratuko dizkiegu, modu eroso eta erlaxatu batean dutxatzea edonorenen eskubidea dela pentsatzen dugulako eta produktu berritzailea denez honen prezioa nahiko altua izango den arren, hauen oinarrizko bertsioaren prezioa, erdi-mailako ekonomia bat duten familia edo pertsonentzat, ahal den moduan eskuragarria izango dela uste dugu, hauei osagarriren bat gehitzean hauen prezioa igoko dela begi bistakoa izan arren.